

-

Zein zerbitzu ematen ditugu

- Euskaltegiko jarduerari buruzko informazioa eskaintzea
- Euskara irakastea, aurrez aurreko ikastaroen (euskalduntze

ikastaroak, xede berezietakoak eta hainbat azterketa eta hizkuntza eskakizunak prestatzekoak) zein auto-ikaskuntzako bitartez (aurrez aurreko mintzasaioen bidez osatutakoak) herritarrek hizkuntza ikasi, landu eta erabiltzeaz gain, euskal kultura bereganatu eta euskal gizartean errazago integratu daitezten, eta, bestalde, azterketa desberdinak presta ditzaten.

- Herritarren euskara maila neurtu eta horren berri ematea (Euskaltegiko taldeetan kokatu edo auto-ikaskuntza ikastaroetan hasteko, azterketa desberdinetara aurkezteko edo beren hizkuntza maila egiaztatzeko).
- Aholkularitza eskaintzea, euskara erabilera ahalbidetu eta implementatzeko herritarrek erabil ditzaketen baliabideen berri izan dezaten.
- Mintzalagun zerbitzua, hizkuntza erabiltzeko zailtasunak dituzten ikasleei eta herritar guztiei, euskal hiztunen harreman sarea eskaintzeko, hizkuntza erabiltzeko ohitura har dezaten.
- Hizkuntza errefortzuko zerbitzua ikastetxeetan, oinarrizko maila eskuratu edota eskoletako jarduera jarraitzeko hizkuntza maila hobetzeko.